

Koldo Aldalur

KAZETARIA

Txakur zaharrak

Bada pilota munduan figura bat aspaldi honetan liluratuta naukana. Bere gazte garaian punta-puntan ibili arren, itxuraz profesioaletara urratsa egiteko zerbait falta zuena –kolpea gehienetan–, baina ofizioa ondo ikasitako pilotaria.

Zaletasun ikaragarria izateaz gain, zeregin garbia izan du galtza zuriak jantzi dituen bakoitzean: ustez munduko hauts guztiak harrotzera datorren pilotari gazteari: “Hi, txikito, ibil hadi poliki, gora egiteko lehendabizi guri irabazi behar diguk eta!” argi esatea.

Hamaika aldiz ikusi dugu kazolakada eder bat egiteko adina txori buruan dituen pilotari gaztea aldagelan erabat jota, ilea zuritzen hasi zaion beteranoak finalean izateko aukera kendu diolako, ordu eta erdiko partidaren ostean. Eta etxera doala ere, ezin barneratu gazteak, pilota atzeratzeko ahalmenaz eta sasoi az gain, badirela beste arma batzuk hogeita bira iristeko. “Ez da posible. Erreboteko zuloan eduki ditugu ia partida osoan... Lau koadro ez dituzte jotzen... Bazirudien hurrengo pilotakadan itoko zirela... Guk galdutakoak bakarrik egin dituzte... Eta irabazi egin digute. Ez da posible”.

Afizionatu mailan ari diren pilotari beterano hauek guztiz beharrezkoak dira, eta enpresa nagusiek soldata ordaindu behar liekete. Izan ere, halakoei esker enpresak ez du



DANI BLANCO

hainbesteko lanik debutatu berriak gogortzen. Horiekin ikasten dute hortzak estutu ezean ez dutela txapelik jantziko, dozena erdi bat ezker gantxo eta bi dejada ez direla aski garaipenaren goxoa sentitzeko. Sufritu egin behar dela, partida osteko eskuko mina luzea izango dela, eta adar jotzea aldagelatan, krudela: “Bion artean ia ehun urte baditugu eta hauek jaiotzerako hor genbiltzan batera eta bestera poltsikoan pilota hartuta. Eta hala ere, ezin digute irabazi. Geuk utzi beharko ditugu kantxak, bestela hauek kapazak dira pilota uzteko”.

Garai batean Joxe Mari Castillo, geroago Miel Etxaniz bergararra, Iñaki Goiakoetxea igeldoarra, oraindik kantxetan ari den Alvaro Okinena naparra... Bakarren batzuk aipatzeagatik. Lanaren balorea erakusten diguten maisuak. Aurkari gazteak landu beharreko akatsak zeintzuk diren berotzen ari direla ikusten dutenak; garairik aproposenean aldagelatik osteratxoa egiten dakitenak; hurrengo txapelketa aurkezten dutenean lagun, eta ez aurkari, nahi duzun hori, direnak; izen gutxi eta joko handikoak; musean ere galtzen ez dutenak. Derrigorrezko figurak, pilotaren tresneriak ondo olioztatu-ta segi dezan. Seguru ez dutela gogoratzen estrainako txapela eta azkena noren aurka irabazi duten. Aurkariei galdetzea da jakiteko erarik azkarrena. ■

« Afizionatu mailan ari diren pilotari beterano hauek guztiz beharrezkoak dira, eta enpresa nagusiek soldata ordaindu behar liekete »

HIRUKO TXIRIAN

Joxemari Ostolaza

Sanferminak



Pasaiako Antxorekin lotzen ditut nik, Errenteriako Madalenen atari. Gaztetan

bost bat urte luzez albora ezinezkoak genituen, hondar autobusa joaten utzi eta goizaldeko lehena hartu bitartean gozamen leku bilakatzen genuena. Inoiz etxeratze bidea oinez eginak gara, Buenavista, Herrera, Mirakruz gaina, Intxaurrondo eta Egia, gure orduko auzoa, tailerreko ordulariak ez zuen barkatzen. Trintxerpeko arrantza portuan gauetako zamari lanak genituen hornidura, festak inoren bizkar ez pasatzeko egokiera. Izan ere, tailerreko asteko jorrala amarena zen, portuko-

ak bi jorndatan berdintzen zuena. Iruñea urrun zegoen, Azpiroz luzeegia eta zezenak egunkarietan. Gurea, betizuak xaxatzea zen errespetua lagun. Lagun batek gaizki kalkulatuak korrikaldian hartutakoak kendu zizkigun goizotzak, eta anbulantziaren sirenak espantuak, Madalenak ohean pasa behar izan baitzituen. Gaur, Lesakakoak ditugu hurbilenak betizuen adarretatik urrun, Ibardin zubi. Ez dugu azken autobusik joaten utzi beharrik, tailerreko ordulariak ez gaitu kontrolatzen, Iruñea telebistan dugu Azpiroz eta Belate alboratuta. Eta etxean nahi ditugunak adar, kolpatuta bizi gara. ■